

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 26an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

15.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko Udal dirulaguntzaren likidazioa eta zuriketa onartzea.

Alkate-udalburuaren 2023ko urtarrilaren 25eko proposamenak dio:

Gaia: Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko dirulaguntzaren likidazioa eta zuriketa onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa (nekazaritza-auzoak eta ingurumen teknikaria eta batzordeko idazkaria) 2023ko urtarrilaren 18an egindako zerbitzuak eta landa garapen batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko bigarren laguntza deialdiaren likidazioa (1059/esp)

2022ko maiatzaren 27an egindako auzo-alkate foroan, besteak beste, Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 1º deialdiaren ebazpena aztertu zen eta bide batez, bigarren deialdiaren oinarri arautzaileen zirriborroa aurkeztu zen.

2022ko maiatzaren 24ean Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, aipatu oinarri arautzaileak onartu ondoren, 2022ko maiatzaren 26an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileak eta 2022ko bigarren laguntza deialdia egitea onartu zituen.

Deialdia eta oinarri arautzailek 2022ko ekainaren 10ean argitaratu ziren GAOn.

2022ko urriaren 20an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran, auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren 2022ko bigarren laguntza deialdiaren onuradunen zerrenda onartu zen:

sarrera zk	Eskatzailea	gastu proposamena BEZa barne	gastuaren deskribapena	Ko-finantz. €-tan	Emandako laguntza
2728	Goribar	6.243,60 €	Berotegi baserrirako bidean biondak jartzea	4.000,00 €	2.243,60 €
2699	Larraña	5.759,60 €	Erbiña baserritik Kortaerrekareko bidea txukuntzea	2.879,80 €	2.879,80 €
2699	Larraña	2.299,00 €	Errekalde Torretxebarrirako bidean biondak jartzea	1.149,50 €	1.149,50 €
2699	Larraña	5.094,10 €	Lizargarate baserrirako bidean biondak jartzea	2.547,05 €	2.547,05 €
2351	Garagaltza	19.176,69 €	Garagaltza Handi eta Arregi baserrien arteko hormak	9.588,34 €	9.588,34 €
2547	Santxolopeztegi	15.197,60 €	Etxatxo Santue bide kontrako horma konpontzea	7.598,80 €	7.598,80 €
2719	Olabarrieta	18.698,41 €	Narraspe-Enparantza argiteria jartzea	7.000,00 €	0,00 €
2727	Uribarri	6.466,66 €	Aingerukoa baserri pareko horma atzeratzea	2.000,00 €	4.466,66 €
2699	Larraña	2.964,50 €	Bideetako lurjausiak	1.482,25 €	1.482,25 €
2699	Larraña	1.996,50 €	Egur-kargalekua eta sagardo etxea aurreproiektua	998,25 €	0,00 €
2699	Larraña	3.025,00 €	Errekalde Urubil bidea egokitzeo azterketa	1.512,50 €	0,00 €
2699	Larraña	15.138,75 €	Larraña auzoko bideak garbitzea	7.569,38 €	0,00 €
2549	Lezesarri	7.188,61 €	auzoko oinezko bideak berreskuratzeko lanak	718,86 €	0,00 €
2699	Larraña	1.297,12 €	Olot irudiaren zaharberritzea	648,56 €	0,00 €
2699	Larraña	1.928,74 €	errenezarentista irudiaren zaharberritzea	964,37 €	0,00 €
2699	Larraña	3.025,00 €	Asiseko Frantzisko deunaren mihisea eraberritzea	1.512,50 €	0,00 €
2699	Larraña	1.062,04 €	Ermitarren barruko argizatzea	531,02 €	0,00 €
2699	Larraña	262,45 €	Ermitarren kristaldegia konpontzea	131,23 €	131,23 €
2537	Madal-Garibai	6.547,31 €	Bikoitz jatetxean eraberritze lanak	3.273,66 €	0,00 €
2723	Murgia	0,00 €	Agina baso pista konpontzeko lanak	0,00 €	0,00 €
2463	Lezesarri	4.308,21 €	Jaumendirako bide hasieran aparkalekuak egokitzea	0,00 €	0,00 €
					32.087,23 €

Auzotasuna deritzon diru-atal gehigarriaren oinarri arautzaileen 11. artikulua xedatutakoaren arabera, deialdiak xedatutako epean memoria ekonomikoa deskribatzen duen likidazioa aurkeztu beharko da. Deialdiaren arabera, likidazioa aurkezteko epe-muga abenduaren 31a da. Teknikariak epe barruan jasotako eskaeren berri eman du.

Gaia aztertu ondoren, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari arestian jasotzen den diru-laguntzaren ondorengo likidazioa onar dezala, falta diren ordainagiriak aurkeztu beharko dituztela gogorarazita.

Eskatzailea	gastu proposam BEZa barne	gastuaren deskribapena	Ko-finantz. %-tan	ebazitako laguntza €-tan	aurkeztu tako likidazio a	Udalaren laguntza
Goribar	6.243,60	Berotegi baserrirako bidean biondak jartzea	64,07	2.243,60	6.243,60	4.000,00
Larraña	5.759,60	Erbiña baserritik Kortaerrekareko bidea txukuntzea	50,00	2.879,80	5.397,00	2.698,50
Larraña	2.299,00	Errekalde Torretxebarrirako bidean biondak jartzea	50,00	1.149,50	2.299,00	1.149,50
Larraña	5.094,10	Lizargarate baserrirako bidean biondak jartzea	50,00	2.547,05	5.094,00	2.547,00
Garagaltza	19.176,69	Garagaltza Handi eta Arregi baserrien arteko hormak	50,00	9.588,34	19.176,68	9.588,34
Santxolopeztegi	15.197,60	Etxatxo Santue bide kontrako horma konpontzea	50,00	7.598,80	15.957,48	7.598,80
Uribarri	6.466,66	Aingerukoa baserri pareko horma atzeratzea	50,00	4.466,66	6.466,66	3.233,33
Larraña	2.964,50	Bideetako lurjausiak	50,00	1.482,25	2.855,60	1.427,80
Larraña	262,45	Ermitarren kristaldegia konpontzea	50,00	131,23	262,45	131,23

”

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamenduak (887/2006 Errege Dekretua) eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak ezarritakoa kontuan hartuta.

38/2003. Legean nabarmentzekoak dira artikulua hauek:

30.2 artikulua: “Justifikazio-kontua ematea onuradunaren edo erakunde laguntzailearen nahitaezko egintza da, eta bertan sartu behar dira, aitortzailearen erantzukizunpean, gastuaren egiaztagiriak edo dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikazio-kontuaren forma eta hura emateko epea dirulaguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan zehaztuko dira.”

34.3 artikulua: “Onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu izana justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Justifikaziorik ez badago edo lege honen 37. artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea galduko da.”

36-43 artikuluetan Diru-laguntzen itzultzea arautzen dute. 38. Artikuluak honakoa dio:

“1. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, kobratzeko, Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

2. Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze- interesa diruaren legezko interesa izango da, ehuneko 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak beste interes bat ezarri ezean.”

Idazkariaren 4/2023 txostena dago espedientean, 2023ko urtarrilaren 25ekoa.

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena, bere 3. Artikuluan 1 eta 2 ataletan honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratorzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Azaldutakoagatik, batzordearen proposamena ikusita, tokiko gobernu batzarrari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Batzordeak proposaturiko onuradunen likidazioa onartzea.

Bigarrena.- Aipatutako gastua onartzea aurrekontuko dagokion partida eta bere lotespen-mailaren kargura.

Hirugarrena.- Onuradunen diru-laguntza ordaintzea.

Laugarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

Bostgarrena.- Diru laguntza hau Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

Seigarrena.- Ebazpen honen iragarkia laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitarapen honek banakako jakinarazpena ordezkatzuko du; eta jakinarazpena egiazkotzat joko da eta bere lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Interesdunek Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Alkatearen O.I.

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan

